

BAOen 2019-05-13an argitaratutakoa
Berdintasunerako kontseilu feministaren araudia onartzea

Bermeoko Udalak 2019ko otsailaren 28n izandako Osoko Bilkurak Berdintasunerako kontseilu feministaren araudia onartzea onartu eban, 2019ko martxoaren 14an BAOan argitaratu eta jagokon epea igarota, alegaziorik aurkeztu ez danez, behin betiko onartuta gelditzen da, ondoren adierazoten dan moduan:

Sarrera

Historian zehar andrazkoak politikatik eta botere guneeetatik baztertu egin dira. Andrazkoek, andrazko izateagatik esparru pribatuaren ardura jasan behar dute; gizonek, aldiz, esparru publikoarena. Lanen banaketa hori eredu patriarkalaren ondorioa da. Sistema androzentriko eta patriarkal batean, gizonen nagusitasuna legitimatzen da, andrazkoen kalterako. Horrek esan nahi du, andrazkoen bizipenak, beharrak, eta ekarpenak ikusezinak eta baliogabeak izan direla botere- eta erabaki-guneetan.

Andrazko guztien auto-estimua kaltetu da, banakoena eta taldearena, eta hori bizitzako eta jendarte-harremanetako arlo askotan ikus daiteke.

Mugimendu feministak andrazkoen aldarrikapenak esparru publikoan sartzea lortu du. Pribatutzat jo ohi ziren hainbat gai esparru publikora pasatu dira; hain zuzen ere, familiaren barruan andrazkoek jasaten duten indarkeria matxista publikoa izatea lortu zen “pertsonala dena politikoa ere bada”¹ lemarekin. Hori dela-eta, andrazkoek jasotzen dituzten indarkeriei buruzko kontzientzia eta salatzeke gaitasuna handitzen doa.

Benetako berdintasuna eraikitzeke andrazko bakoitza bere bizitzaren protagonista izan behar da. Era berean, subjektu aktiboak izatea eta politika publikoetan erabakitzeke gaitasuna izatea ezinbestekoa da. Hau da, andrazko barik, demokrazia ez da existitzen, herritarren kopuruaren erdia politika publikoetatik kanpo uzten delako; eta horretarako, andrazkoak ahaldundu behar dugu erabaki gune hauetan parte-hartzeko.

Horregatik guztiagatik, Bermeoko berdintasunerako kontseilu feminista politika publikoetan andrazkoen parte-hartzea handitzeko izan behar da. Eta baita Bermeoko andrazkoak ahalduntzeko tresna bat ere. I Udal Berdintasun planak honako hau dio: “6.1

¹ “Kate Milletten asmoa (“*Sexual Politics*” obrarekin) andrazkoen kontrako diskriminazioak eta erasoak politizatzea zen. Hau da, indarkeria matxista ez dela isilpean pairatu beharreko arazo pribatua, egitura sozial jakin baten ondorioa baizik. Horrekin batera, Millettek uko egiten zion patriarkatua eta genero-rolak giza naturaren ondorio direla onartzeari. Beraren ustez, patriarkatuaren jatorria historikoa eta kulturala da. [Kate Millett - Wikipedia, entziklopedia askea.](#)

HELBURUA: Andrazkoen erakundeak sustatu eta dinamizatu beren sendarpena lortzeko, elkarre hauen lankidetzan eta jokaera koordinatua eta sare elkargarriak sortzeko helburuekin. 6.1.5. Ekintza: Herriko andrazko mugimenduari buruzko kontseilua sortu". Ildo beretik, II. Berdintasun planak honako hau dio: *1.2 HELBURUA: Elkarlanerako guneak sortzea. 1.2.3. Ekintza: "Berdintasunerako emakumeen kontseilua sortu, erreglamendua onartu eta aurrekontua esleitu".* Hori dela-eta, Bermeko udalak, konpromiso honekin lotuta eta I. eta II. Udal Berdintasun planek diotenarekin bat guztiz beharrezkoa ikusi du parekidetasun politikak baliogarriak izateko berdintasunerako kontseilua sortzea.

Horrela, udal honek beste aurrerapauso bat emango du parekidetasunaren aldeko politikak bultzatzearen alde. Hasieran, Gizarte Ongizate Patronatuak kudeatzen zituen berdintasun politikak, eta 2017. urtean beste aurrerapauso bat emanez, berdintasun teknikari bat izendatu zen; berdintasun politikak modu integral batera bultzatzearen aldeko apustua eginez.

Gainera, kontseilua sortu izanak ezinbesteko egiten du udala eta herriko andrazko elkarteak zein talde feministak, elkarlanean aritzea andrazkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde.

Parekidetasun politikak kudeatzeko egiturak berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzen du. Halaber, herri-aginteei berdintasunarekin duten konpromisoa indartzen du eta partaidetza publiko eraginkorragoa eta zuzenagoa eragiten du.

1. artikulua. Izaera.

1. Berdintasunerako kontseilu feminista, udalaren sailetarako organo aholku-emaile eta parte-hartzailea izango da, baina ez da loteslea² izango. Herri mailan berdintasunari buruzko politika sektorialak gauzatzeko sortua.

2. Berdintasunerako kontseilu feministak egindako proposamen eta ekarpenak udalaren behin betiko erabakian ez badira kontuan hartzen, udalak horren arrazoiak eman beharko ditu.

3. Berdintasunerako kontseilu feministaren ekarpena erabakitzaila izango da Berdintasun Planaren garapenarekin zerikusia duten gaietan eta, orokorrean, berdintasunari buruzko jardueran.

² Hau da, andrazkoen mahaian adosten diren proposamenak aurrera eramango dira, baldin eta, lege edo dekreturen baten kontrako proposamenak ez badira.

4. Berdintasunerako kontseilu feministak ondoko araudi honetan esandakoa betetzeko konpromisoa hartzen du; baita legozkiokeen beste arau eta xedapen batzuetan esandakoa ere.
5. Berdintasunerako kontseilu feminista ez da egongo udal korporazioaren menpe eta autonomia funtzionala edukiko du.
6. Berdintasunerako kontseilu feministak herriaren eta udalaren arteko bitartekaritza lana egingo du. Hau da, mahaikideek herriko beharrian eta proposamenak kontseilura eramango dituzte, aztertuta eta kontu hartuta izateko; bestalde, udalak ere berdintasunarekiko proposamenak eramango ditu kontseilura.

2. artikulua. Baloreak

1. Berdintasunerako kontseilu feministan parte hartzen duten kide guztien arteko errespetua eta jarrera eraikitzailea bermatuko da.
2. Kohesioa egongo da, hau da, kontseiluaren helburuak lehenetsiko dira beste interes partikular batzuen gainetik.
3. Mahaikideek elkar laguntzea eta elkar babestea ezinbestekoa izango da. Kontseiluko talde edo pertsonaren baten aurkako berba eta erasoak daudenean, kontseiluak erantzun bateratu bat emango du eta erasotua babestuko da.
4. Konfiantzazko gune bat izango da, non parte-hartzaileek zintzotasunez eta eroso berba egin ahal izango duten.
5. Zeharkakotasuna bermatuko da. Hierarkiarik gabeko gunea izango da.

3. artikulua. Helburua³

1. Andrazko eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren alde lan egin nahi duten pertsonen eta eragile sozialen sarea sortzea.

³ Parekidetasunak esan nahi du: baliabide ezberdinak eskaini behar direla, bakoitzaren egoera kontuan hartuta, abiapuntu berdinerara heltzeko. Horrelako baliabideak eskaintzea Udalari dagokio, berez, Udalarekiko helburuetan edo egitekoetan parekidetasun hitza erabiliko da.

2. Udalaren politikek eta zerbitzuek andrazkoen eta gizonezkoen arteko parekidetasuna bermatzea zaintzea.

3. Euren jatorria, etnia, dibertsitate funtzionala, erlijio, joera sexuala, lanbidea eta abarrak direla-eta, era askotako bazterketa pairatzen duten andrazkoen taldeei benetako aukera-berdintasuna bermatzen zaiela zaintzea.

4. Andrazkoen gizarte-ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea, politika, gizarte, lan, ekonomia, hezkuntza, kultura eta gizarteren arlo gzutietan andrazkoen eta gizonen berdintasuna benetakoa izan dadin azterlanak, txostenak eta proposamenak eginez eta administrazio-organoei neurri politikoak proposatuz.

4. artikulua. Egitekoak.

1. Finkatu dituen helburuak betetzeko, hona hemen Berdintasunerako kontseilu feministari dagozkion egitekoak:

a) Udalaren politika zuzentzea, parekidetasuna lortzeko xedearekin.

b) Generoaren eta era askotako bazterkeriari buruzko azterlan eta txostenak sustatzea.

c) Feminismoari buruzko aurreiritziak lantzea, bai mahaikideei begira, bai kanpora begira.

d) Berdintasunerako kontseilu feministak berdintasuna sustatzeko ekintzak egiten dituzten elkarre eta erakundeen nortasuna errespetatzea, eta beren arteko lankidetzaz eta kooperazioa bultzatzea.

e) Aukera berdintasuna lortzeko udal jarduera plangintzak bultzatzea eta plangintza horien jarraipena egitea.

f) Toki Administrazioari aholkuak ematea jarduera lerro nagusiak zehaztean eta aurrekontuan lehentasuna eman behar zaien gauzak zehaztean.

g) Berdintasunerako kontseilu feministan parte hartzen ez duten pertsona edo taldeek egindako iradokizunak edo ekimenak jasotzea.

h) Berdintasunerako kontseilu feministari iristen zaizkion diskriminazio jarreraren salaketak jasotzea eta salaketok bideratzeko ahalmena duten organoen esku uztea, salatu diren jokabide horiek **berdintasunaren** oinarria hautsi edo andrazkoentzat iraingarriak badira eta behar bezala oinarrituta badaude.

i) Parte hartzea bultzatzea, andrazkoen aldeko jarduerak daramatzaten beste elkarre eta gainerako erakundeekin elkarlana eta elkarlaguntza bultzatzea.

j) Mahaikide berriak hartzea edo kideren bat kanpora botatzeko erabakia hartzea.

2. Udalak, Berdintasunerako kontseilu feministaren zereginak betetzeko eta horren funtzionamendu egokia bermatzeko hartu behar dituen baliabideak, aurrekontuetan, eskainiko ditu.

5. artikulua. Berdintasunerako kontseilu feministaren osaketa.

1. Bermeoko Berdintasunerako kontseilu feministan eskubide osoko kide izango dira honako hauek:

a) Arloko arduradun politikoa

b) Arloko teknikaria

c) Jarduera eremua Bermeen duten andrazkoen taldeak.

d) Feminismoan interesa eduki dezaketen kirol eta kultur elkarteetako andrazkoak.

e) Berdintasunaren aldeko jarduerak egiten dituzten eta gaiaren inguruan interesa duten andrazko indibidualak.

2. Berdintasunerako kontseilu feministak kide behatzaileak edo aholkulariak onartu ahal izango ditu, hitz izango dutenak baina botorik ez.

6. artikulua. Berdintasunerako kontseilu feministan sartzeaz.

1. Aurreko artikulua aipatu dituen erakundeek eta taldeek Berdintasunerako kontseilu feministan parte hartu ahal izango dute aurrez mahaiburuari idatziz eskatuta. Sartu nahi dutela eskatzean honako datu hauek eman beharko dituzte:

a) Erakunde, elkarte edo taldearen izena.

b) Edukiko balituzte, elkartearen edo erakundearen estatutuak, edo/eta batzarraren erabakia bertako andrazko-talde antolatuek edo sailek funtzionamendurako autonomia dutela aitortuz.

c) Edukiko balute, egoitzaren helbidea eta andrazko bazkide-kopurua.

d) Erakundeak edo elkarteak Berdintasunerako kontseilu feministan izango duen ordezkararen izen-abizenak. Baita horren ordezkoaren izena ere.

e) Deialdietarako helbidea eta telefonoa.

2. Berdintasunerako kontseilu feministan parte hartu nahi duen beste edozeinek, ondoko datu hauek ekarri behar ditu:

a) Izen-abizenak.

b) Parte hartzeko dituen arrazoiaren azalpena.

c) Gaiarekiko duen interesa egonkorra dela eta diru-irabazi asmorik ez duela dioen zinpeko aitortpena.

e) Deialdietarako helbidea eta telefonoa.

3. Berdintasunerako kontseilu feministak onartu egingo ditu kide izateko eskariak, aurreko artikuluan ezarritako baldintzan bete direla egiaztatu ondoren.

4. Datuetan aldaketaren bat balego kontseiluko idazkariari jakinarazi behar zaio, aldaketa egin eta hurrengo hilabetearen barruan.

7. artikulua. Berdintasunerako kontseilu feministan parte hartzeari uztea.

1. Mahaikide izaera ondoren aipatuko diren arrazoiengatik galduko da:

a) Norbere borondatez uztea.

b) Hiru aldiz ez agertzea idazkariari ohartarazi gabe.

c) Araudi honetan esandakoa behin eta berriz haustea edo/eta kontseiluaren funtzionamendua modu larrian haustea.

d) Berdintasunerako kontseilu feministaren printzipio eta helburuen aurkako jokabideak izatea, jarduerak egitea edo adierazpenak agertzea.

2. Berdintasunerako kontseilu feministak berak hartuko du kontseilutik kanporatzeko erabakia elkarteak, erakundeak edo dena delakoak esateko duena entzun ondoren.

3. Mahaikide izateari uzteak ez du esan nahi berriro kontseilura ezin denik sartu, kontseilutik botatzeko arrazoiak desagertu badira.

8. artikulua.

Berdintasunerako kontseilu feministan egoteak ez du ekarriko inolako ordainik.

9. artikulua. Eginkizunak eta ardurak

Mahaiburua.

Mahaiburua izango da Berdintasunerako kontseilu feministak izango duen ordezkari nagusia. Arduradun politikoa izango da.

Hona hemen horren betekizunak:

- a) Bilerak zuzendu eta amaitzea; eztabaidak zuzentzea.
- b) Mahaikideen proposamenez, kideen izendapenak eta uztarazteak jasotzea.
- c) Dagokion batzordeari, kontseiluak egindako proposamenak helaraztea.
- d) Berdintasunerako kontseilu feministari, egin dituen proposamenen garapenari buruzko argibideak ematea.

Idazkaria.

Udaleko berdintasun teknikaria izango da. Idazkariaren betebeharrak hauexek dira:

- a) Bilera-deiak egin eta bidaltzea.
- b) Berdintasunerako kontseilu feministako bileren aktak jasotzea eta erabakien ziurtagiriak egitea.
- c) Mahaikide eta ordezkarien erregistroa egunean eramatea. Baita altak eta bajak ere.
- d) Eztabaidak gidatu eta bideratzea. Halaber, gaiak teknikoki landu eta kontseilura eramatea.

Elkarte eta erakundeetako ordezkariak.

Berdintasunerako kontseilu feministan parte hartzeak haxe dakarkie:

- a) Araudia onartzea.
- b) Elkarte edo erakundeari mahaiko edukien berri ematea.

c) Bileretan erabakitakoak betearaztea.

d) Proposamenak mahaigaineratu eta modu eraikitzaile baten parte hartzea.

10. artikulua. Funtzionamendua.

1. Duen izaera kontuan edukita, Berdintasunerako kontseilu feministak ahalmena du dagokion batzorde informatiboari proposamenak egiteko. Batzordeak ahalmena duten erakundeei emango die proposamenen berri eta erantzuna ezezkoa bada Berdintasunerako kontseilu feministari idatziz erantzungo dio ezezkoaren arrazoibideak emanez.

2. Parte-hartzaileen kopuruaren arabera bi gune sortuko dira: Talde eragilea eta batzordea. Talde-eragilea hilean behin batzartuko da eta batzordea, berriz, maiztasun txikiagorekin. Talde-eragileak egiten duen guztiaren berri eman beharko dio batzordeari.

a) Talde eragilearen funtzioak:

- a) Kontseiluaren barruko arautegia eta funtzionamendurako gainerako arauak eta horien aldaketak ere proposatzea.
- b) 4. artikuluan aipatzen diren eginkizunak betetzea.

b) Batzordearen funtzioak:

Bermeoko andrazkoen interesak defendatzeko eta sustatzeko beharrezko deritzen proposamenak egitea talde eragileari.

3. Proposamenak egiteko elkarren arteko akordioetara iritsi behar da. Horretarako, mekanismorik egokiena kontsentsua da.

Erabakiak aho batez hartuko dira eta hala ezin denean, gehiengo sinplearen bidez.

4. Berdintasunerako kontseilu feminista eratzeko behar den quoruma, kideen erdia gehi kide bat izango da.

11. artikulua. Deialdia.

1. Bilera-deiak zazpi egun natural lehenago egin behar dira, idatziz. Deiarekin batera eguneko behin-behineko gai-ordena eta aurreko bileraren akta bidaliko dira. Mahaikideek hiru egun edukiko dute gai-ordenan sartzeko beste gairen bat proposatzeko. Azkenengo bilera-deia behin-betiko gai-ordenarekin, lau egun natural lehenago bidaliko da.

2. Presazko deialdia egiteko, oster, gehienez ere lau egun naturaleko epea izango da.

12. artikulua. Aldi baterako xedapena.

Gaur egun Berdintasunerako kontseilu feminista osatzen duten elkarte eta pertsonak (1. eranskina) araudi honetan ezarritakoa bete behar dute.

Berdintasunerako kontseilu feministak egoki ikusten badu, araudi hau berrikusi egingo da.

13. artikulua. Azken xedapena.

Osoko Bilkurari dagokio agiri honetako xedapenak eta bere aldaketak onestea.

Bermeon 2019ko apirilaren 29an

Alkatea

Idurre Bideguren Gabantxo